



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko urriaren 2a

15. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da premiaz aplikatu eta arautu dezan Errepide bidezko osasun-garraioko ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura ezartzen dituen 836/2012 Errege Dekretuan xedaturikoa. Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Oinarrizko Lanbide Heziketaren berariazko alderdiak arautzen dituen otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua aldatzea. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Plan Ekonomiko eta Industrial bat taxutu eta Parlamentura igor dezan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ubidearen proiektuarekin jarrai dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da banda zabala hedatzeko plan berri bat egin dezan berehala Nafarroan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, Emakumeen eta Haurren Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu ETA banda terroristaren buruzagitza atxilotu dutelako, eta desegin dadin exijitzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu indarkeria marxistaren adierazpen ororen aurkako salaketa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ETAREN armagabetze egiaztagarria eta haren egituren desegite ordenatu, seguru eta behin betikoa exijitzen baititu. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ehuneko 0,7aren banaketari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek N-1 errepidean, Etzegarate parean, bidesaria bidesaria jartzeaz iragarpenari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, zenbait ikastetxetan azpiegitura berriak jartzeko epeei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, espetxe arloa dela-eta programa-akordioan hartutako konpromisoei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristari buruz daukan jarreraren gainekoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, 2016ko aurrekontuetan Nafarroan banka etikoaren egitura sendotzeko kontusail bat jasotzeko aurreikuspenari buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko zer urrats egiten ari den Nafarroako Gobernuak gizonetzko bikoterik gabeko emakumeei lagundutako giza ugalketako teknikak Zerbitzuen Zorroan onartze aldera. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Gobernu zentralaren ordezkariak hartutako erabakiari buruz; hain zuzen, erregimen frankistak 1975ean fusilatutako enezko ekitaldiak debekatzekoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Volkswagen-en bere diesel motoreen emisioen emaitzak manipulatu dituela onartu ondoren gertatutako krisiari buruzkoa. Maiorga Ramirez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, programa-akordioko neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, emergentziatzko kontusailletara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (18. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (19. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, gizarteratze-errentaren erreforma aztertze lantaldeari buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (20. or.).
- Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, PAI-Ingelesez Ikasteko Programari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegi jaunak egin du (22. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da premiaz aplikatu eta arautu dezan Errepide bidezko osasun-garraioko ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura ezartzen dituen 836/2012 Errege Dekretuan xedaturikoa.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita premiaz aplikatu eta arautu dezan Errepide bidezko osasun-garraioko ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura ezartzen dituen 836/2012 Errege Dekretuan xedaturikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuak errepedeko osasun garraioa arautu zuen. Besteak beste, anbulantzia-gidarien profila eta prestakuntza- eta gaikuntza-betekizunak ezarri zituen.

Arau horrek ezartzen duenez, bi hilabeteko epea dago argitaratu zenetik aitzina (2013ko ekainaren 8a, ostirala) autonomia erkidego bakoitzak

behar diren neurriak har ditzan errege dekretuak habilitazioei eta kreditazioei dagokienez ezarritakoa aplikatu, kontrolatu eta garatzeko. Halere, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak ez zuen neurririk hartu. Une honetan, alderdi honetan zehazki, Nafarroan ez dago ez erregistrorik, ez araurik ere, lege horren garapena arautzen duenik eta legea betetzen ote den kontrolatzeko tresnak ezartzen dituenik.

Nafarroan errege dekretuaren aplikazioa gai horretan atzeratu izanak konparaziozko bidegabekeriak eragin ditu profesionalen artean.

2015-2019 legegintzaldiko Nafarroako Gobernurako programa-akordioaren 9. puntuak honako hau dio:

“Osasun-garraioko zerbitzua arautzea eta berrantolatzea, 836/2012 Errege Dekretura egokitzeko, eta zerbitzua gero eta publikoagoa bihurtzeko bidea urratzea, arreta hobetzeko eta zerbitzua herritar guztiak erabil dezaketela ziurtatzeko; bereziki, larrialdietako osasun-garraioari dagokionez.”

Mozio honek, gainera, azpimarra jartzen du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2013ko apirilaren 25ean aho batez onetsitako erabakian, zeinari buruz UPNren Gobernuak ez baitzuen egin behar adinako jarduketarik.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroan lehenbailehen aplika eta arautu dezan Errepide bidezko osasun-garraioko ibilgailuek eduki beharreko ezaugarri teknikoak, osasun-ekipamendua eta langile-hornidura ezartzen dituen 836/2012 Errege Dekretuan xedaturikoa.

2. Araugintza bitartez ezar ditzan 836/2012 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak, prozedurak eta hezkuntza-bitartekoak, laguntza-anbulantziak gidatzeko betekizun diren akreditazioak eta habilitazioak lortzeko.

3. Nafarroan lan egiten duten osasun-garraioko teknikarien erregistro bat egin dezan.

4. Egungo osasun-garraioaren ebaluazio bat lehenbailehen egin dezan eta berrantolamendu bat egiteko aukera azter dezan, Nafarroan osasun-garraio osoa kontrolatu eta arautuko duen larrialdien gerentzia bat sortuz.

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion Oinarrizko Lanbide Heziketaren berariazko alderdiak arautzen dituen otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua aldatzea.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion Oinarrizko Lanbide Heziketaren berariazko alderdiak arautzen dituen otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua aldatzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Espainiako Gobernuari eska diezaion deialdia egin dezan Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulazioa lortu ahal izateko.

Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoak ezarpen-egutegi bat finkatzen du bosgarren xedapen gehigarrian, hezkuntza-administrazioak behartzen dituen Oinarrizko Lanbide Heziketaren ezarpena bukatuta 2015-2016 ikasturtean bukatzera.

Halere, ezarpen-egutegi horrek berak aurreikusten du baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiei 2017-2018 ikasturtean zehar egitea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua lortzeko kanpo-ebaluazioak (errebalidak).

Hala, bada, gutxienez ere bi ikasturtetan –2015-2016 eta 2016-2017–, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek ezin izanen dute lortu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulazioa, nahiz eta beren ikasketak arrakastaz bukatu edo etengabeko ikaskuntzarako gaitasunak lortzeari lotutako moduluak gaititu.

Egoera horrek, milaka ikaslerentzat zeharo bidegabea izateaz gain, agerian jartzen du, berriz ere, diskriminazio handia pairatuko dutela, hezkuntza erkidegoaren egiazko beharrezanez eta kezkei arrotz zaien egutegi bat aplikatzearen ondorioz.

Horregatik nahi dugu, beste erakunde eta elkarte batzuek bezala, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak albait azkarren buka dezan egoera hori, halako moduan non ikasleei nahiz haien familiei eta irakasleei ziurgabetasuna ekidinen baitzaie.

Erabaki proposamena:

Foru Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Espainiako Gobernuari eska die-

zaion Oinarrizko Lanbide Heziketaren berariazko alderdiak arautzen dituen otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua alda dezan, xedapen iragankor bat sartuz hartan, ikasleei ahalbidetuko diena hurrengo bi ikasturteetan lortzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulazioa inolako kanpo ebaluazioko probatara –errealidatze– aurkeztu beharrik gabe, baldin eta beren ikasketak arrakastaz bukatzen badituzte edo arrakastaz

gainditzen badituzte maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 42.4 artikuluan ezarritako bloke komunei lotutako moduluak. Titulazio hori bakarra izanen da, eta Gradu Ertaineko Lanbide Heziketara nahiz Batxilergora sartzeko balio izanen du.

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Plan Ekonomiko eta Industrial bat taxutu eta Parlamentura igor dezan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Plan Ekonomiko eta Industrial bat taxutu eta Parlamentura igor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da garapen ekonomiko-industrialerako plan bat presta dezan.

Ukaezina da ekonomiak nabarmen egin duela hobera, bai Nafarroan bai Espainia osoan. Halere, 2008an gogor astintzen hasi zen krisi ekonomikoaren ondorioak nabarmenak dira oraindik ere Nafarroako ekonomiaren osasunean. Iragan

legegintzaldian, Parlamentuak hainbat ekimen onetsi zituen, Nafarroak industria-plan berri bat izan dezan. Halatan, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2012ko eztabaidan aho batez onetsi zen erabaki bat, Nafarroako Gobernuak premiatzen zuena industria-plan bat taxutu eta ezar zezan. 2013ko otsailaren 21ean, langabeziari buruzko Osoko Bilkuran ateratako ondorio gisa, Nafarroako Gobernuak premiatu zen jarduketa- eta enplegu-esparru berriak bilatzen dituen industria-plan bat egin zezan.

Nafarroako industriaren errealitateak estatistika negatiboak ematen ditu oraindik ere; izan ere, Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, Nafarroan guztira 160 enpresa desegin ziren 2014an. Kontuan hartuta 2013an 184 desegin zirela eta 2012an 177, nabarmen igo da desagertutako enpresen kopurua.

Nafarroako Gobernuak berak hori berresten duten txostenak eta datuak dauzka. Hor da, esate baterako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 2013an egindako azterlana: "Nafarroako eremuetan garatutako jarduera ekonomikoen bilakaerari buruzko azterketa".

Azterlan horrek erakusten duenez, 2011tik 2013ra bitarte 6.673 enpresa desagertu dira. Hona Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren azterlanean jasotako beste zenbait datu:

Hiru urtean (2011-2013), enpresen batez beste kopurua aldatu da:

– Tuterako eskualdean, 8 langile izatetik 3 izatera.

– Iruñean, 11tik 4ra. Iruñean, bost enpresatik hiru autonomoak dira.

– Erdialdean, 9tik 3ra.

– Goi Erriberan, 9tik 3ra.

– Ipar-mendebaldean, 8tik 3ra.

– Pirinioetan, 7tik 2ra.

Hona hiru urtean (2011-2013) desagertutako enpresen kopurua:

– Iruñean, 1.064.

– Erdialdean, 685. Bost enpresatik hiruk ez daukate langilerik; alegia, gehienak autonomoak dira.

– Goi Erriberan, 1.454.

– Ipar-mendebaldean, 193.

– Pirinioetan, 473.

Bestalde, nabarmendu beharra dago jaitsi egin direla azken urteotan Nafarroako Gobernuak enpresa-inbertsiorako eta I+G+B-rako emandako zuzeneko laguntzak. Halaber, oso esanguratsuak eta kezagarriak dira orain dela gutxi ezagutu ditugun datuak, zeinen arabera Nafarroako Foru Komunitatea baita Espainiako erkidegoetan azken-aurrekoa industria-produkzioaren indizearen hazkundeari dagokionez. Era berean, Nafarroa behera egiten ari da egindako esportazioen bolumenean, batez besteko nazionalaren aldean.

Agertoki delikatu baten aurrean gaude; izan ere, krisi ekonomikoak Foru Komunitatean daukan

eraginak eta azken datuek erakusten dute Nafarroako industria-sarea lehiakortasuna galtzen ari dela; horrenbestez, ekintzetara igaro beharra dago ezinbestez, hurrengo hamarkadetako produkzio-garapenaren oinarriak jarriko dituen plan ekonomiko eta industrial baten bidez.

Plan horrek neurriak jaso behar ditu gure erki-degora enpresak erakartzeko, dagoen ekonomia-sarea modernizatzeko eta ahal den lanpostu-kopuru handiena bultzatzeko, enplegu egonkor, seguru eta kalitatezkoa lehenetsiz. Orobat aztertu behar du erkidegoko zer eremu geografiko azitu dituen gehien krisiak, horietan enpresa-sarea ezartzea bultzatzeko.

Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du:

Sei hilabeteko epean Nafarroako Plan Ekonomiko eta Industrialak taxutu eta Parlamentura igor dezan, enplegu egonkor, seguru eta kalitatezkoa sortzeko neurriak jasoko dituen. Halaber, enpresa-sarea ezartzeko pizgarriak emanen ditu, bereziki enpresen deslokalizazio eta desagertze handiena pairatu duten eskualdeetan.

Orobat ezarriko ditu enpresa-inbertsiorako eta ikerkuntza, garapena eta berrikuntza –I+G+B–garatzeko pizgarriak, jarduketa-esparru berriak identifikatuko ditu eta dagoen enpresa-sarearen modernizazioa, produktibitatea eta egonkortasuna sustatuko ditu.”

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Ubidearen proiektuarekin jarrai dezan.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Nafarroako Ubidearen proiektuarekin jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Ubidearen proiektuarekin jarraitzeari buruzko honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onets dadin.

Gutxi araututako baliabide hidriko ugari ditu Nafarroak bere ibaietan, eta horiek uholdeak eragiten dituzte eta hamarkadetan zehar ez dituzte konpondu gaur egun nahiz etorkizunean egon litezkeen hiri- eta landa-eskariak.

Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikiz konpondu egin nahi izan ziren detektatutako arazoak, ziurtatze aldera hiri-kontsumoa nahiz industria-sektorearen eta nekazaritzako elikagaien sektorearen garapen estrukturala eta ekonomikoa.

Proiektua hiru zatitan banatu zen: urtegia, ubidea eta eremu ureztagarria. Urtegia bukatuta dago. Itoizko urtegitik abiatzen den ubidea, aldiz, eraikitze-fasean dago: bukatuta dago haren lehen fasea, eta egitekotan, berriz, handitzea.

Foru Komunitateko lurraldearen zati handi bat zeharkatzeko proiektatu zen, halako moduan non ura eramanez baitzuen ia Nafarroa osoko herrietara eta eskaria egiten zuten lurretara, lurralde orekaren aldeko apustu garbia eginez.

80ko eta 90eko urteetan, obra bere osotasunean aztertu, proiektatu eta ebaluatu zen, ekonomia-erren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik.

Proiektuaren osotasunaren errentagarritasun ekonomikoa ziurtatuta zegoen obra bukatutakoan, ratio oso positiboekin.

Ingurumen-kalteak aztertu ziren, eta neurri zuzentzaile ugari ezarri ziren, bai eta inpaktua minimizatze aldera egin beharreko aldaketa guztiak ere. Gizarteak proiektua onartu zuen, enpleguaren arloan eta zerbitzu publikoen bermearen arloan zekarren onuragatik.

Hona ubidea eraikiz lortu nahi ziren helburu nagusiak: Irati ibaian emari ekologiko bat mantentzea; ibai horren ur-gorakadak deuseztatzea; ureztalutur bihurtzea lehorreko lurra 53.125 hektarea; 14.000 hektareatik gorako ureztalutur tradizionalan ur-hornidura ziurtatzea; Foru Komunitateko biztanleen % 70entzako hiri- eta industria-hornidura (99 herri); eta, azkenik, energia elektrikoa sortzea (egindako kuantifikazioaren arabera, Nafarroako Foru Komunitate osoaren energia-kontsumoaren % 6,5). Beharizan horiek asetzeko, Nafarroak Itoizko urtegitik heldu den uraren emakida lortu zuen.

Ubidearen proiektuak bi fase zituen. Lehendabizikoa, Itoizko urtegitik Aragoi ibairaino; bigarrena, Artaxoatik Abiltaseraino.

Urteak joan urteak etorri, lehendabiziko fasea handitu zen eta hasierako proiektua aldatu zen, eta horrek Estellerriaren parte handi bati mesede ere egin zion.

Proiektua finantzatzeko eta obrak egiteko, Estatuko Administrazioa eta Nafarroa lankidetzatinkoan arituko zirela adostu zen. Gobernu Zentralk 1996tik 2000ra bitarte berari zegozkion funtsak jarri zituen. Lehendabiziko fasearen handitzea finantzatze aldera, beste akordio bat sinatu zen Artaxoan 2013ko abuztuan, eta Estatuak handitze horretan zegozkion zatia hartu zuen bere gain, Estatuaren Aurrekontu Orokorren kargura.

Nafarroako Gobernu berriak, bere kontseilariaren adierazpenen arabera, berraztertu egiten du ubidea Erriberara heltzea. Lauko Gobernu-akordioak sektore estrategikotzat hartzen ditu lehen sektorea eta nekazaritzako elikagaien sektorea, eta Nafarroako Ubideari buruz dio ez duela etorkizuneko estrategiarik taxutuko proiektuaren

ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-alderdiei buruzko azterlanik gabe.

Nafarroako Alderdi Popularraren ustez, proiektu horiek hil ala bizikoak dira lehen sektorearentzat eta nekazaritzako elikagaien sektorearentzat, eta Nafarroa osoaren onerako dela justifikatzen duten ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-azterlan nahiko horniturik daude.

Hortaz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

1. Nafarroako Ubidea egiten jarrai dezan, Estellerriranzko bere lehen handitze-fasean, bere

eremu ureztagarriak gara ditzan eta hornidura ziurta diezaien eskualdeko herriei eta industriari.

2. Artaxoatik Abiltaseraino doan Nafarroako Ubidearen bigarren faseari buruzko azterlanekin, proiektuekin eta etorkizuneko exekuzioarekin jarrai dezan, bai eta Nafarroako Erriberaren hiri- nahiz industria-hornidura bermatzen duten obra eta proiektuekin eta haren eremu ureztagarrien garapenarekin.

3. Itoiz-Nafarroako Ubidea Gobernuaren arreta bereziko eta bere inbertsioetan lehenetsitako obra dela deklaratu dezan eta halakotzat har dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuari premiaz du banda zabala hedatzeko plan berri bat egin dezan berehala Nafarroan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuari premiaz du banda zabala hedatzeko plan berri bat egin dezan berehala Nafarroan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko elehun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2010eko martxoan, Nafarroako Gobernuak iragarri zuen abian jarriko zuela Telekomunikazio Azpiegituren Plana, zeinak, hil horren 9an igorritako prentsa-oharraren arabera, "ahalmen handiko sare bat" zertuko baitzuen, "industrialdeak, zentro

teknologikoak, unibertsitateak eta erakundeak konektatuko dituen."

Hasierako inbertsioa 3.889.651 eurokoa izan zen, eta urte anitzeko gastua baimendu zen; halatan, plan horrek lehentasunezko jarduketak ezarri zituen; besteak beste, zuntz optikoa hedatzea Viaraino Estellerrian, Zangozaraino, Sakanaraino eta are Pirinio alderaino.

Gaur den egunean, arestian aipatutako eskualdeetan ez dute ikusi banda zabala heltzen beren fabriketara, enpresetara, ikastetxeetara, osasun etxeetara; ezta, jakina, bizilagunen etxeetara. Gure foru komunitatearen garapen ekonomikorako lehentasunezko inbertsio horretan gertatutako paralisia freno bat da industria-sarearen hazkunderako eta lehiakortasunerako, eta eskualde haietan bizi direnen aukera berdintasunerako.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du berehala taxutu dezan Nafarroan banda zabala hedatzeko plan berri bat, inbertsiorako funtsak ezarriz 2016ko aurrekontutik hasita eta mapa bat prestatuz, zeinean konpromiso bat ezarriko baita herrien, industrialdeen eta intereseko espazioen arabera irismen-konpromisoari, aurreikusitako konexio-abiadurari eta gehienezko exekuzio-epetegi dagokienez.

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala, Emakumeen eta Haurren Sexu-esplotazioaren eta Trafikoaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio berriro hel diezaion Sexu-esplotaziorako pertsona-trafikoari buruzko Protokoloari, zeina 2011n hasi baitzen eta konpromiso politikorik ezagatik ahaztua izan baita. Protokolo hori funtsezko tresna bat da biktimekin nahiz inplikaturako esparruetako profesionalekin lan egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuaren ustez funtsezkoa da Emakumeen aurkako Indarkeriaren Legea egiaz aplikatzea eta emakumeen eta gizo-

nen arteko berdintasunari buruzko lege berri bat idaztea, arreta berezia jarrita hezkuntzaren arloan.

3. Nafarroako Parlamentuak eskatzen du sexu-esplotazioaren eta trafikoaren aurka jarduteko neurri eta programa integralak abian jar daitezten. Parlamentuak orobat eskatzen du prostituzioan jarduten diren pertsonen berma dakien osasun nahiz gizarte zerbitzu publikoetarako sarbidea.

4. Nafarroako Parlamentuak estigmatizazioarekin bukatzeko eta errealitatea ezagutarazteko eztabaida soziala irekitzeko konpromisoa hartzen du”

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu ETA banda terroristaren buruzagitzaren atxilotu dutelako, eta desegin dadin exijitzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten du ETA banda terroristaren buruzagitzaren atxilotu dutelako.

2. Nafarroako Parlamentuak beste behin ere exijitzen du ETA banda terroristaren desegin dadin”

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere egiten baitu indarkeria matxistaren adierazpen ororen aurkako salaketa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du indarkeria matxistaren adierazpen ororen aurkako salaketa, eta erabaki du Parlamentuaren fatxada nagusian “indarkeria matxisten aurka” dioen pankarta more bat paratzea heldu den azaroaren 7an, mugimendu feministak goiburu horrekin deitutako estatu-martxarekin denboran bat etorritz.

2. Nafarroako Parlamentuak erabaki du beste horrenbeste egitea urtero azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunarekin batera.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde publikoak premiatzen ditu berdintasunaren aldeko bere babesa eta indarkeria matxisten aurkako prebentzioa gauzatzera, haren biktimei behar duten laguntza juridiko, sozial eta psikologikoa eskainiz eta Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Foru Legea betez, zeina aho batez onetsi baitzen 2015eko martxoaren 26an.

4. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du laguntza berezia garatzera askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzat eta indarke-

ria matxistak erasotutako beste kolektibo batzuentzat –sexu-bestelakotasuna duten pertsonak, etorkinak, funtzio-bestelakotasuna duten pertsonak, langabetuak edo mendekotasuna dutenak–, laguntza-prozesuetan biktimizazio anizkoitzean erori gabe.

5. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeriaren aurka egiteko ekarpena egin dadin laguntzera ikastetxe eta hezkuntza etapa guztietan, eskola erkidegoarekin lankidetzan arituz.

6. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du du sexismoaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitera kultur jardunean, festen antolatzean, segurtasun eta bizikidetasun jardunean eta udal eskumeneko zerbitzu eta jarduketa guztietan, bai eta gizarte zibilaren parte-hartzea sustatzera ere; bereziki, emakumeen elkarrean.

7. Nafarroako Parlamentuak dei egiten du gure jarduera eta zerbitzu guztietatik desagerraztera sexismoa, bereizkeria, jazarpena eta sexu-estereotipoak.”

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Abortuaren Despenalizazioaren aldeko Ekintza Globalaren Egunarekin; hartara, emakumeen bizitza eta osasuna errespetatzearen aldeko egun hori ospatuko du, eta bat egiten du mitoen haustea eta mundu guztian abortu seguru, legezko eta estigmatik gabekoa eskuragarri egotea erreklamatzeko duennazioarteko kanpainarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen erreforma, PPK egina, zuzendu dezan, eta 2010ean onetsitako lege-tesitura itzul dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala eta oso-osorik gara dezan martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du luza gabe berma diezaien emakume nafar guztiei beren amatasunari buruz erabakitzeko eskubidea, halako moduan non haurdunaldia borondatez eten ahal izatea bermatuko baita Nafarroako osasun sistema publikoan”

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak ETAren armagabetze egiaztagarria eta haren egituren desegite ordenatu, seguru eta behin betikoa exijitzen baititu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak ETAren armagabetze egiaztagarria eta haren egituren desegite ordenatu, seguru eta behin betikoa, biktima guztien errekonozimendua eta erreparazioa eta salbuespeneko zigor- eta espetxe-neurrien amaiera exijitzen ditu.

2. Nafarroako Parlamentuak lan egingen du indarkeria iraganeko errealitate bat deneko egoera bat lortzeko eta etorkizuna bizikidetasunak, demokraziak, askatasunak eta bakeak markatua egon dadin.”

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ehuneko 0,7aren banaketari buruzkoa.*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ehuneko 0,7aren banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Esku-bide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen esku dago beren aitortpenean kuota osoaren ehuneko 0,7 bideratzea Eliza katolikoaren sostengu ekonomikoan laguntzera edo/eta gizarte intereseko beste xede batzuetara. Halere, Nafarroan, Espainiaren gainontzekoan ez bezala, zergadunak bi laukitxoak markatuz gero, hautatutako bi xedeen artean banatzen da ehuneko 0,7a. Ba al duzu ehuneko 0,7aren banaketa aldatu eta gainontzeko Espainiara berdintzeko asmorik?

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek N-1 errepidean, Etzegarate parean, bidesaria jartzeaz eginiko iragarpenari buruzkoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Gipuzkoako Batzar Nagusiek N-1 errepidean, Etzegarate parean, bidesaria jartzeaz eginiko iragarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek orain dela gutxi iragarri dute bidesaria jarriko dutela N-1 errepidean, Etzegarate parean. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer egingen du horri dagokionez?

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, zenbait ikastetxetan azpiegitura berriak jartzeko epeei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, zenbait ikastetxetan azpiegitura berriak jartzeko epeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako zenbait ikastetxek azpiegitura berrien premia larria dute; esate baterako, Sarriguren, Castejón, Biurdana edo Erronkarikoek. Zer data edo epe daukazu aurreikusita neurri horiek hartzeko?

Iruñean, 2015eko irailaren 21ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, espetxe arloa dela-eta programa-akordioan hartutako konpromisoei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, espetxe arloa dela-eta programa-akordioan hartutako konpromisoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aldaketaren lau indarrek sinatutako programa-akordioak espetxe arloari buruzko hainbat konpromiso jasotzen ditu; horien artean, azpimarratu beharrekoak dira eskubide sozialei buruzkoak.

Iruñeko espetxea kudeatze aldera Espe-txeetako Zuzendaritza Nagusiarekin sinatutako akordioa berrikustea proposatzen da, bai eta preso-oen eta preso ohien bizi-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea ere, haien eskubideak bermatuz eta gizarteratzea erraztuz. Hartara, dauden baliabideak eta programak beharrezanetara egokitu behar dira, finantzaketa egokiaren bidez eta presoekin nahi preso ohiekin lan egiten duten laguntza ematen dieten elkarteekiko lankidetzaren bidez.

Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu konpromiso horiek garatzeko? Zein epetan? Zertan gauzatuko da arlo horretan lan egiten duten elkarteekiko lankidetzatza?

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristari buruz daukan jarreraren gainekoa.

CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak ETA banda terroristari buruz daukan jarreraren gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Ikusita Gobernuaren eledunaren honako adierazpen hauek: "Dei egiten diegu bi aldeei, ETARI eta Gobernuari, aurrera egin dezaten", hauxe jakin nahi dut:

Distantziakidetasuna izanen al da Nafarroako Gobernuaren jokabidea ETA banda terroristari dagokionez?

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, 2016ko aurrekontuetan Nafarroan banka etikoaren egitura sendotzeko kontusail bat jasotzeko aurreikuspenari buruzkoa.

MARÍA FÁTIMA ANDREO VÁZQUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Fátima Andreo Vázquez andreak aurkeztutako galdera, 2016ko aurrekontuetan Nafarroan banka etikoaren egitura sendotzeko kontusail bat jasotzeko aurreikuspenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Fátima Andreo Vázquez

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Aurreko legegintzaldi batean –2010eko apirilaren 21ean– erabaki bat onetsi zen, Nafarroako Gobernua premiatzen zuena “gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetan” eta “kontusail bat ezar dezan 2011 eta 2012ko aurrekontuetan, urtean 35.000 euro inguruko esleipena izanen duena, banka etikoaren egitura Nafarroan irmotze aldera”. Hori guztia kontuan hartuta,

Aurreikusita al dago 2016ko aurrekontuen zirriborroan kontusail bat jasotzea onetsitako erabaki hori, aurreko gobernuak inoiz ere bete ez zuena, betetzeko?

Iruñean, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Fátima Andreo Vázquez

Galdera, jakiteko zer urrats egiten ari den Nafarroako Gobernua gizonezko bikoterik gabeko emakumeei lagundutako giza ugalketako teknikak Zerbitzuen Zorroan onartze aldera.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer urrats egiten ari den Nafarroako Gobernua gizonezko bikoterik gabeko emakumeei

lagundutako giza ugalketako teknikak Zerbitzuen Zorroan onartze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Guk dakigunaren arabera, Nafarroan gaur egun ez zaie egiten lagundutako giza ugalketako

teknikarik emakume bikotegabeei eta bikote homoterotikoan dauden emakumeei.

Nafarroako Gobernua zer urrats egiten ari da, baldin eta urratsik egiten ari bada, gizezko bikoterik gabeko emakumeei lagundutako giza ugalketako teknikak gure erkidegoko Zerbitzuen Zorroan onartzeko?

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Gobernu zentralaren ordezkariak hartutako erabakiari buruz; hain zuzen, erregimen frankistak 1975ean fusilatutakoen omenezko ekitaldiak debekatzekoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen Gobernu zentralaren ordezkariak hartutako erabakiari buruz; hain zuzen, erregimen frankistak 1975ean fusilatutakoen omenezko ekitaldiak debekatzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu zentralaren ordezkari Carmen Alba andreak debekatu egin ditu erregimen frankistak 1975ean fusilatutakoen omenezko zenbait ekitaldi. Parlamentari honek hauxe jakin nahi du erabaki horri dagokionez:

- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Gobernu zentralaren ordezkariak gai horretan izandako jarrerari dagokionez?

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Volkswagen-en bere diesel motoreen emisioen emaitzak manipulatu dituela onartu ondoren gertatutako krisiari buruzkoa.

MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramirez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Volkswagen-en bere diesel motoreen emisioen emaitzak manipulatu dituela onartu ondoren gertatutako krisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidatzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

- Parlamentari honek jakin nahi du ea Nafarroako Gobernuak zer kontaktu izan dituen eta zer jarduketa egin dituen jakite aldera eta baloratze aldera Volkswagenen sortutako krisiak izanen dituen ondorenak, hark bere diesel motorren emisioen emaitzak manipulatu dituela onartu ostean.

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, programa-akordioko neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, programa-akordioko neurrien kostu ekonomikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Programa-akordioko zenbait neurriko kostu ekonomiko bat daukate ezinbestean. Zein da neurri horien zenbatespen ekonomikoa?

Iruñean, 2015eko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak planteatu dituen emergentzia sozialeko neurrien zergatiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak “emergentziako” zenbait neurri planteatu ditu emergentzia sozialeko tizat jo duen egoera bat zuzentzeko. Zehazki, aparteko laguntzak, gazteentzako bermea eta gizarte enplegu babestua 2 milioi, 1,03 milioi eta 0,6 milioi euro handitzea, hurrenez hurren.

– Zer datutan oinarritzen zarete egoera hori emergentziakoa dela esateko?

– Datu horien iturria.

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, emergentziazko kontusailletara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentziazko kontusailletara transferentziak egiteko baliatu diren kontusailei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak “emergentziako” zenbait neurri planteatu ditu emergentzia sozialeko tizat jo duen egoera bat zuzentzeko. Zehazki, aparteko laguntzak, gazteentzako bermea eta gizarte enplegu babestua 2 milioi, 1,03 milioi eta 0,6 milioi euro handitzea, hurrenez hurren.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontuko zer beste kontusailletatik egin da transferentzia bakoitza “emergentziakoak” deritzen kontusailletara? Kontusail horien zenbakia eta izena. Zer departamenturi dagokion kontusail horietako bakoitza.

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko kontusailez baliatu diren eta baliatuko diren pertsonen buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak “emergentziako” zenbait neurri planteatu ditu emergentzia sozialeko tzat jo duen egoera bat zuzentzeko. Zehazki, aparteko laguntzak, gazteentzako bermea eta gizarte enplegu babestua 2 milioi, 1,03 milioi eta 0,6 milioi euro handitzea, hurrenez hurren.

– 2015ean zehar kontusail horietaz baliatu den pertsona-kopurua, kontusailak handitu diren arte.

– Handitzea indarrean sartzen denetik 2015a bukatu bitarte kontusail horietaz baliatuko den pertsona-kopuruari buruzko aurreikuspena.

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, jakiteko ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, jakiteko ea 2015eko hasierako aurrekontuan emergentzia sozialeko kontusailik ba ote zegoen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Nafarroako Gobernuak "emergentziako" zenbait neurri planteatu ditu emergentzia sozialeko tzat jo duen egoera bat zuzentzeko. Zehazki, aparteko laguntzak, gazteentzako bermea eta gizarte enplegu babestua 2 milioi, 1,03 milioi eta 0,6 milioi euro handitzea, hurrenez hurren.

Kontusail horiek 2015eko hasierako aurrekontuan ba al zeuden? Kontusail horien zenbakia, izena eta hasierako zenbatekoa.

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, gizarteratze-errentaren erreforma aztertze lantaldeari buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, gizarteratze-errentaren erreforma aztertze lantaldeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide

den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Eskubide Sozialetako lehendakariordeak, 2015eko irailaren 16ko parlamentu-bilkuran egindako agerraldian, adierazi zuen foru administratioko eta gizarte entitateetako teknikariek eratutako lantalde batek ekinen diola, laster, egungo Gizarteratze-errenta erreformatzeko analisiak eta azterlanak egiteari.

Zer entitatek osatuko dute lantalde hori, eta zer irizpide baliatuko dira horiek lantaldean sartzeko? Erreforma horretarako egingen diren analisisien eta azterlanen zerranda.

Iruñean, 2015eko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailan banatu den gaztelaniazko Zientzia Sozialen liburuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion.

1.- Garesko Eskola Publikoko Lehen Hezkuntzako 5. mailako gaztelaniazko ikasleei Anaya argitaletxearen EAerako ediziorakoa den liburua banatu zaie Gizarte Zientzien ikasgaiari. Hezkuntza Departamentuak ba al daki zergatik egin den hori?

2.- Zer neurri hartuko ditu?

Corellan, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Hezkuntza Departamentuak zer aurreikusten du Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeari dagokionez?

Corellan, 2015eko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, PAI-Ingelesezi Ikasteko Programari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegi jaunak aurkeztutako galdera, PAI-Ingelesezi Ikasteko Programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Gimeno Gurpegi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Irailaren 23an egindako agerraldi publikoan, Nafarroako Gobernuaren eledunak positibotzat eta trinkotzat jo zuen bere lehendabiziko bi hilabeteetako jarduna.

Hezkuntza arloari dagokionez zehazki, iragarri zuen departamentua lanean ari dela PAI-Ingelesezi

sez Ikasteko Programa baloratzen eta hobetzen; esan zuenez, bilerak egin dituzte 35 udal eta 50 ikastetxe baino gehiagorekin.

1. Nafarroako Gobernuak esaten duenean PAI-Ingelesezi Ikasteko Programa baloratzen eta hobetzen lan egiten ari dela, zeri buruz ari da, Hezkuntzako kontseilariak programa horretan parte hartzen duten udalekin eta ikastetxeekin izandako unean uneko hitzorduei buruz, ala behar den baloratze- eta hobetze- prozesu hori aurrera eramate aldera berariaz taxututako plan bat egoteari eta abian jartzeari buruz?

2. Departamentuak PAI baloratzeko eta hobetzeko plan zehatz eta berariazko hori jada egin baldin badu, zeintzuk dira horren helburuak, ebaluazio-metodoak, aplikazio-egutegia, ebaluagai diren ikastetxeak hautatzeko irizpideak, tresnak eta parametroak?

3. Oraindik ere ebaluazio programarik ez baldin badu, Hezkuntzako kontseilariak zer aurreikuspen dauka programa hori taxutzeari eta abian jartzeari dagokienez?

4. Zenbat familia daude behartuta beren seme-alabak beren bizilekutik kanpora eskolatzera, beren herrian PAI-Ingelesezi Ikasteko Programa ezarrita daukan ikastetxerik ez egoteagatik?

Iruñean, 2015eko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegi

